

MOKO eta KAPMELE



Auditz-Akular berriro ere mahaigainean

Ostiralean, hilak 15, Udaltzaren ezohiko bilera egitekoa da, Udal Gobernu Batzordeak deituta. Ostiraleko osoko bilkuran Auditz-Akularrez eztabaidatuko da, batik bat. Gogoan izan PSE-EEK 3.000 etxebizitza egin nahi dituela bertan: 2.539 babes ofizialekoak eta 440 salmenta librekoak.

PSE-EEK, ordea, ez du beste inongo udal talderen babesa. Beraz, joan den astelehenean, ostiraleko osoko bilkurari begira, Odon Elorza alkateak oposizio taldeekin negoziazioak hasi zituen babesa lortzeko. Negozioak, hala ere, akordiorik gabe amaitu dira. Bien bitartean, Odon Elorzak, Auditz-Akularri buruz, ezohiko bilkura deitu izana kritikatu du

oposizioak. EA-EAJren, PPreu eta Donostiako Sozialista Abertzaleak taldearen arabera, ez du zentzurik Auditz-Akularreko egitasmoa berriro eztabaidatzeak, mar txoan Udal Gobernuak aurkeztu eta Udaltzarak atzera botatako proiektu bera aurkeztu baitu oraingoan.

Ostiraleko osoko bilkuran, proiektuaz gain, Eusko Jaurlaritzak Auditz-Akularren lursailak erosteko egindako proposamena aztertuko da. Baita Basozabalen salmenta libreko 60 etxebizitza egitea ere.

Bestalde, Udal Gobernuak iragarritakoren arabera, hil honetan bertan San Martin merkatuaren proiektua mahai gainean jarriko da.



Hitz eta pitz

Euskal literaturaren bilakaeraz

Felipe Juaristi idazleak Leer Para Vivir gaztelaniazko literatur saria irabazi berri du. Igandean elkarriketa egin zion Euskaldunon Egunkariak eta bertan, Juaristik, azken 20 urteetan euskal literaturak bilakaera polita izan duela dio. "Gero eta idazle gehiago dago eta gero eta literatura hobea egiten da. Duela 20 urte ez zeukan dimentsio bat du gaur euskal literaturak, besteak beste, industria bat dagoelako". Hala ere, bilakaera horrek alde onak eta txarrak dituela iritzi du idazleak. "Alde txarrei begiraturuz gero, nik uste dut duela 20 urteko literatura askoz sozialagoa zela eta ez hain indibiduala. Alderdi onari begiraturuta, orain askoz errezagoa da idaztetik bizitzea."

